



15. urteurrenaren manifestua

2025eko urriaren 17an



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica

Gizartearen txoko eta ertz guztietara zientzia hurbildu

Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak hamabost urte bete ditu eta aro berri bati ekin dio, 2010ean sortu zenean finkatutako misiotik abiatuta: herritarren kultura zientifikoa sustatzea gizarte demokratikoago baterantz aurrera egiteko. Gaur, konpromiso hori zabaldu egiten da.

Zientzia gizartearen txoko eta ertz guztietara hurbildu nahi dugu, ezagutza ahalik eta jende gehiagorentzat eskuragarri eginez martxan jarriko ditugun ekimenen bitartez.

Espero ez gaituzten tokietan egon

Ibai baten delta izan nahi dugu: **gizartea bere aniztasun osoan bustiko duen ezagutza-bidea**, adar ugari dituen ezagutzaren ibilgua. Erdiguneetara mugatu beharrean ertzetara ere iritsiko dena, zientziarekin hain lotuta ez dauden espazioetara isuriko dena. Ezagutza lurralde horietara (lurralde geografikoak, sozialak eta kulturalak) eramatea ez da erronka logistiko bat bakarrik: dibulgazio inklusiboago, bidezkoago eta eraldatzaileago baten aldeko apustu etikoa da.

Kultura zientifikoaren hedapena ezin da mugatu bakarrik nagusi diren espazio akademiko, digital edo hiritar nagusietara. Iritsi nahi dugu zaurgarritasun-egoeran bizi direnengana, teknologiarik erabiltzen ez dutenengana, dibertsitate funtzionalak dituztenengana edota hirigune handietatik urrun dauden auzo, herri edo inguruneetan bizi direnengana. Azken finean, ezagutzaren ohiko bideetara iristen ez direnenganaino. Eta txoko eta ertz horietara hurbildu nahi dugu, ez keinu puntual gisa, baizik eta kultura zientifikoaren difusioari dimentsio berri bat emateko.

Horregatik, **ikuspegi irisgarri eta multikanal** baten aldeko apustua egiten dugu, askotariko publikoengana iristeko aukera emango diguna: gure blogetatik ([Zientzia Kaieran](#), [Cuaderno de Cultura Científica](#), [Mujeres con ciencia](#) eta [Mapping Ignorance](#)), ikus-entzunezko plataformetara; gure sare sozialetatik



zientzia-dibulgazioko jarduera presentzialetara; herri eta hirietako plaza eta kaleetatik kultura-zentroetara. Dagoeneko finkatuta dauden espazioei eustez gain, zientzia oraindik esploratu ez ditugun lurralde batzuetara eramatea da helburua. Zientziak errealitate ezberdinekin jarrera hurbil eta ireki batetik hitz egin dezakeela erakusten digute *Bilbo Zientzia Plaza* edo *Zientzia Kalean* bezalako proiektuek, betiere zorrotasunari uko egin gabe.

Eskala aldatu

Hiri-kapitalen gailentasunarekin hautsi egiten dugu eta apustu egiten dugu inpaktu kuantitatibotik harago neurtzen den zientziaren komunikazioaren alde, kontuan hartuz pentsamendu kritikoa, gizarte-kohesioa eta parte-hartze aktiboa sustatzeko duen gaitasuna ere. Jakintzaren transmisioari eta zientzia prestakuntzari esker, **norbanakoaren eta taldearen ongizatean lagunduko duen kultura zientifikoa**; entzun, behatu eta ikasiko duena. Eta normalean iristen ez den txoko horietara iristea ere lortuko duena.

Horretarako, jauzi bat eman behar dugu: **egiten duguna eskuragarriagoa bihurtuz, edukiak eta formatuak publiko anitzarentzako garatuz eta askotariko espazioetara hurbilduz**. Zientzia, edonon egon arren, ez baita oraindik eskuragarri denontzat. Hala azaldu du Emily Dawson University College of Londoneko Zientzia eta Teknologia Ikasketen Saileko ikertzaileak FECYTeko ["Hacia una comunicación inclusiva de la ciencia: Reflexiones y acciones de éxito"](#) argitalpen digitalean (11.or.).

"Oraindik ere, zientziaren komunikazioa talde pribilegiatuentzako baliabide eta jarduera multzo bat da. Pertsona bat hiri batean bizi bada, aberatsa bada eta goi-mailako ikasketak baditu, aukera gehiago izango ditu zientziaren komunikazio-jardueretan parte hartzeko, museoetan, jaialdietan, hitzaldi zientifikoetan edo antzeko jardueretan".

Hau da, komunikazio zientifikoak eremu eksklusiboa izaten jarraitzen du; gure ardura da, beraz, zabaltzea eta benetan inklusibo egitea.



Zientzia inklusiboa eta eraldatzailea

Bere sorreratik, EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak zeregin aktiboa izan du **kultura zientifikoa oinarri demokratiko gisa aldarrikatzeko**. Fase berri honek sendotu eta zabaldu egin nahi du ondare hori. Kultura zientifikoa eguneroko paisaia kulturalaren parte izatea sustatu behar dugu, baina beste urrats bat ere eman behar dugu gero eta jende gehiagorengana iristeko. Orain, ekarpena egin nahi diegu berdintasunari, justizia sozialari eta ongizate kolektiboari ere.

Asmo horrek inguruko eragile sozial, teknologiko eta kulturalekin lankidetzaren dinamikak sendotzera eta zabaltzera eramango gaitu, ezagutzaren komunikazio inklusiboaren alde elkarrekin lan egiteko. Esate baterako, BRTA aliantza bezalako zentro teknologikoekin, **Zientziaz Blai** bezalako ekimenekin edota **Irakurketa Erraza Euskadi**, **Zientziaren Giltzak** edo **ZarautzOn** bezalako elkarkeekin, zientzia askotariko publikoei hurbiltzeko.

Etorkizuneko zientziak ekitatiboa eta inklusiboa izan behar du, inor atzean utzi gabe generoari, lurraldeari, dibertsitate funtzionalari, kulturari edo sexu-joerari lotutako arrazoiengatik. Ez da nahikoa egotea: ezinbestekoa da **gure ekimen eta proiektuen irisgarritasuna sustatzea eta bermatzea, pertsona, kolektibo eta publiko guztiengana iritsi ahal izateko**. Zubi-lana egitea da gure helburuetariko bat, herritarrak eta diziplina zientifiko ezberdinetako profesionalak elkartzeko. Sinergiak sortu nahi ditugu, gizartean ezagutza zabaltzeko balioko duten tresnak garatzeko, **guztion ongizatean benetako eragina izan dezaten**.



(Xedea)

Herritarren kultura zientifikoa sustatzea nahi dugu, gizarte demokratikoago eta inklusiboago baterantz aurrera egiteko, pertsona gehiagorengana iritsiko diren proiektuekin eta ekimenekin zientzia gizarteko txoko eta ertz guztietara hurbilduz.

(Ikuspegia)

Ezagutza-bide bat izan nahi dugu, ibai baten deltaren antzera gizarte osoa bere aniztasunean bustiko duena, dibulgazio zientifikoaren irismena espazio konbentzionaletatik harago zabalduz, herritarren ongizate kolektiboari eta indibidualari ekarpena egiteko.

(Helburua)

Ezagutza zientifikoa eskuratzeko oztopoak murriztea eta kultura zientifikoa ondasun amankomun bihurtzea da gure helburua, gizarte bidezkoago eta inklusiboago bat lortzeko.

(Balioak)

- Inklusioa. Gure nahia askotariko publikoengana iristea da, kultura zientifikoa pertsona, talde eta publiko gehiagori irekitako ekimenen bidez.
- Irisgarritasuna. Oztopo fisikoak, kulturalak, sozialak, geografikoak edo teknologikoak ezabatzeko konpromisoa dugu, ezagutza zientifikoa pertsona guztiengana irits dadin. Ez da nahikoa present egotea, ezinbestekoa da gure ekimen eta proiektuen irisgarritasuna sustatzea eta bermatzea.

- Eskuragarritasuna. Hiriburuen zentraltasunarekin hautsi nahi dugu, eta kultura zientifikoa herri txikietako kultura programazioaren parte ere izan dadin bultzatu.
- Justizia soziala. Dibulgazio zientifikoa desberdintasunak murrizteko eta gizarte bidezkoagoa sustatzeko tresna bezala ulertzen dugu. Hori dela eta, pertsona gehiagorengana iristeko moduko proiektu eta ekimen irekiak bultzatzen ditugu.
- Eraldaketa. Herritarrak diziplina zientifiko ezberdinetako profesionalekin lotuko dituen zubia izan nahi dugu, balio erantsia emango duen eta biztanleriaren ongizatean benetako eragina izango duen dibulgazio zientifikorako tresna erabilgarriak garatzea ahalbidetuko duten sinergiak sortuz.
- Konpromiso etikoa. Zientziaren komunikazioa posizio edo jarrera hurbil, ireki eta arduratsu batetik egitea dugu helburu.
- Lankidetzeta. Gure inguruko eragile sozial, teknologiko eta kulturalarekin elkarlanean ari gara ezagutzaren komunikazio inklusiboagoa lortzeko.
- Zorroztasuna. Ezagutzaren transmisioan, kalitatea eta zehaztasuna mantentzen ditugu, hurbiltasunari uko egin gabe.
- Entzute aktiboa eta etengabeko ikaskuntza. Gizartearekin dugun elkarrizketatik elikatzen den bi norabideko prozesu gisa ulertzen dugu komunikazio zientifikoa.